

# JOKERAK

## LENA, ORAINA ETA GEROA

Jaungoiko ez gara. Era batera, lena, oraina ta geroa ez ditugu ikusten.

Lenari, berak euki ta emon euskun indarra, deuseztu egin nai izaten jako.

Oraina artzen dabe batzuk ontzat bakarrik. Norberak egin ta ikusten dabena. Ta emen, dago nerezat korapilloa nai galdera...

Geroak guri buruz, zer esan bear ete dau!... Ez giñala? Aitatzekoak ere ez gerala izan?...

Ta eretxi ori dala-ta, gure izate guztia lurpera botateko eskubidea, nork emongo deutso?...

## LENAREN INDARRA

Gaurko gizona lengoa baño jakintsuagoa da.

Au gizonaren legea da gaur, ta len ere, olan izan zan.

Orain berrogetamar urtetik eta ona, ikaste, asma-kizun eta aurrerapide aundiak egin dira gizartean.

Aurreratze guzti au lendik artu dogun jakituriari ezarten deutsagu.

Orain berrogetamar urte ta lenagokoak utsean egon izan ba'litzaz eta ezer egin gabe, gu ere antzean eta eurekandik ur egongo giñan.

Perretxiku jakintsurik ez dago.

## LURRALDEAK EURENA

Jakitori saillean, lurralde bakoitzak berea izan dau, guk geurea dogun bezela.

Egiz, esan giñaike; gizon izate, almen, bear izanei ta abarrei begiraturik, jakituriaren gora-bera bat erriaren nortasuna da.

Baña gizon, lurralde ta endetara begira jarri ezker, alde aundiak aurkitzen ditugu.

Gizonaren izateak —eta gurea berezia da— jakin zaletasunari esan-nai. Ta indar apartekoa ezarten deutse.

## GUK EUSKALDUNENA

Euskaldunak millaak urteren buruan bere nortasun aundi sortu dau.

Egia ta zuzentasuna bere izate bezela biurtuta daukaz.

Jauntxo zale ta zapaltzaille, iñoiz, ez da izan Euskaldunaren japintza, iñola, ez da bide ortatik joan. Euskaldunaren pentsabidea, bata bestearen alde oso deduzkoa, beti, izan zen.

Gizonaren bizia ta eskubideak, deduz, ikusi ditu euskaldunak.

Gure erriak, ikasiz, ta giza legez gizonaren ta errien nortasuna ezagutu ta dan bezela artzen jakin dau.

Bere nortasuna ta erri-zaletasuna, ortxe, oiñarrituta daukaz.

Gizonak jakituriz, maitasunez ta askatasunez bere izatea ta eskubideak izan ta bizitza egin bear dau.

## OINARRIAI EUTSI

Enda zar ta zintzo onek bere oiñarrak ezin ditu apurtu, zuzenak eta egizkoak ditu-ta.

Eusko jakintza ta jakin-zaletasuna, gizontasun berezia ta erlejiñoa, gizaldien gizaldiz, bere-bereak ditu, euskaldunaren izateari, ondo, jatorkozenak.

Origai beratu ditu.

Izkuntza ere, bera dan bezelakoa sortu dau.

Dedu aundikoa, ederra, sakona, mamintsua.

Ta orain, edertasun guzti onek, zelan baztertuko ditugu?

Au gure izatea apurtzea litzake.

Onek kendu ezker, gu ez gara euskotar jatorrizko enda, ez euskaldun, ezta Aitorren giza-seme jatorrak.

Munduko zuzengabekeri ta zapaltzeak ikusita, amorrua artzen dau gizonak, baño, lengo beste batzuen txarkeriak amorrua sortueraz. Besterik ezer egiten ez ba'dau ere. Erriak bere senean zuzentzeko, jakituri ta gizontasuna izango dira erri bide zuzen-dari.